# ¡IRAKURRI, ETA ONDO PASA!




**LIBURUA**

## 'Egun zakurrak'

Udako oporrak dira, eguraldi aparta dago, eta jendea gustura dabil kalean. Baina, non da Greg Heffey? Etxe zuloan sartuta dago, bideo jokoekin jolasean. Gregek dio etxean geratzea gustatzen zaiola, eta, orain, ametsetako oporraldia bizitzen ari dela: lanik ez, araurik ez. Amak, ordea, oso bestelako ikuspegia du uda idealaz eta oporrez. Zernolako oporrak igaro beharko ditu Gregek?: bere gogokoak edo amarenak. *Gizajo baten egunkariaren* laugarren liburua da.

**Jeff Kinney**
Argitaletxea: **Alberdania**




**LIBURUA**

## 'Matiasen ametsa'

Museo batera egindako lehen bisitak bizitza aldatu dio Matiasi; bere etorkizuna bideratzen lagundu dio: ganbara apal batean bizitzeari utzi, eta bidaiatzen eta bere margolanak nazioarteko ospe handiko aretoetan erakusten hasi da. Gaztetxoei artea erakusteko baliatu du egileak Matias saguaren istorioa. Artearen hainbat estilo azaltzen dira liburuan: klasizismoa, inpresionismoa, kubismoa...

**Leo Lionni**
Argitaletxeak: **Kalandraka eta Pamiela**

## DENBORA-PASAK





### 1. Zazpi aldeak

Euri ugari egin duela eta, barraskiloak nonahi agertu dira. Bat oso berezia topatu du Manexek. **Bi irudi horien artean, zazpi alde daude. Bilatu!**

### Erantzunak



**2.-** Antton izena du okinak.

### 2. Ezkutuko hitza

Okindegi berria zabaldu dute herrian. **Okinaren izena jakiteko, mugitu hizkiak lekuz.**




